

GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTU BERRIAK ONARTZEA

AMVISAK eta Vitoria-Gasteizko Udalak Urarekin eta Saneamendurekin lotutako lau proiektu berri lagundu dituzte diruz 2018an, garapen bidean dauden herrialdeetan. Horretarako, AMVISAK 225.000,00 € jarri ditu, eta Udalak, 116.684,01 €.

Ur eta saneamendu azpiegiturarako proiektuak

“Veredasen (Tolima, Kolonbia) ubide komunitarioko sistema bat eraikitzea” proiektua, AMVISAK jarritako 110.000,00 €-rekin, Kolonbia-Euskadik eskatuta.

Ata ibaiaren goiko eremuko hiru komunitateetako (Progreso, Peñarica eta Villanueva) 300 biztanleentzako edateko moduko ur sistema baten lehenengo zatia eraikiko da. Era berean, ur zerbitzuaren kudeaketa eta mantentze sistema bat jarriko da martxan.

Eta ibaiaren arroa babestu eta zainduko da, homiduraren iraunkortasuna bermatze aldera.



“Patahuasin (Ayacucho, Peru) ura, saneamendua eta ekitatea edukitzeko eskubidea” proiektua, Udalak emandako 110.000,00 €-rekin, Medicus Mundi Arabak eskatuta.

Ur hornidurarako sistema bat eraikiko da Patahuasi (Peru) komunitateko 176 biztanleentzat. Era berean, garbitegi eta komun ekologikoak eraikiko dira 54 familiarentzat eta sei eraikin publikotarako.

Bestalde, ur zerbitzuaren kudeaketa eta mantentze sistema bat jarriko da martxan.



“Fanaye (Senegal) komunako herrietan ura eta saneamendua hobetzea” proiektua, AMVISAK emandako 110.000,00 €-rekin, Africanista Manuel Iradier elkarteak eskatuta.


Léréyél (Senegal) inguruko bost herriarako edateko ura hornitzeko sarea eraikiko da: 140 metroko sakonera duen putzu bat, ponpaketa sistemarekin; 50 m³-ko andel goratu bat; eta 16 km-ko banaketa sarea, zazpi ur hartunerekin.

Bestalde, ur zerbitzuaren kudeaketa eta mantentze sistema bat jarriko da martxan.

Proiektu teknikoaren lanketa

“Diariko (Labéko prefektura, Ginea) gizon-emakumeek edateko ura edukitzeko duten giza eskubideari buruzko azterketa teknikoa”, Udalak emandako 6.684,01 € eta AMVISAK emandako 3.315,66 €-rekin, Nazioarteko Elkartasunak eskatuta.

Edateko uraren hornidura sistema bat osatzeko proiektua landuko da. Azterlanak bereziki hartuko du kontuan genero ikuspegia, ur horniduraren iraunkortasunerako alderdi tekniko, ekonomiko zein sozialei erreparatuz.



Gogoan eduki!

URAREN KUDEAKETAREN PRAKTIKA ONEN MULTZOA

4 KONTSUMO GEHIEGIKERIA OHIKOENEI AURRE EGINEZ

Gure kontsumo ohituren eraginez, edateko ura oharkabean xahutzen dugu. Batzuetan, keinu txiki bat edo ohitura aldaketa bat nahikoa izaten da isurbidetik alferrik doazen ur litro ugari aurrezteko. Nondik hasi, baina?

✓ Ez utzi txorota irekita xaboia eman, bizarra egin, hortzak eskuilatu edo platerak garbitu bitartean.

✓ Ohitu txorota topera ez irekitzen, oro har ez baita beharrezkoa izaten. Eta aginte bakarreko txorota izanez gero, utzi ur hotzaren posizioan, energia aurrezteko.

✓ Ahal denean, hautatu komun hustuketarako aukerarik onena.

✓ Dutzatu ala bainua hartu? Ez izan zalantzarik: dutxa batekin hamar aldiz kontsumo txikiagoa izango duzu.

Bost minutuko dutxa nahikoa da!

✓ Ahalegindu etxeko guztien artean dutxaren erabilera optimizatzen: bata bestearen atzetik dutxatuz gero, dutxa bakoitzean ur beroa etorri artean joaten diren litro guztiak galtzea saihestuko duzue. Ur horri etekina ateratzeko moduak ere bila daitezke: batzuek ur hori erabiltzen dute landareak urretzatzeko, adibidez.

✓ Batez ere udan, utzi ura hozkailuan, hoztu artean joaten utzi behar ez izateko.

✓ Ez utzi jan hondarrak baxeran itsas daitezen; gero, hori garbitzeko ur gehiago beharko baituzu.

✓ Mugatu garbigarri eta xaboi kopurua, eta ahalik eta gutxien erabili, gero errazago urberritzeko.

✓ Etxetresnak beteta daudela jarri martxan, kontsumo txikiko programekin.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org